

PARQUE TECNOLÓGICO-TEKNOLOGI ELKARTEGIA, S.A.-RI
(aurrerantzean, BZTP)
APLIKAGARRI ZAION FUNTSEZKO ARAUDIA

Nabarmendu beharra dago ondoren adierazten den araudia, BZTPri aplikatzen zaiona, azalpenezkoa dela soil-soilik eta ez mugatzailea. Ia ezinezkoa baita BZTPri aplikagarri zaizkion arauen zerrenda osoa egitea, arau bakar bat ere ahaztu gabe. Izan ere, jarduera-eremuaren arabera, zuzenbidearen hainbat alor eta hainbat mailatako alor aplikagarri dira Espainiako Konstituzioari jarraiki, hala nola BZTP osatzen duten pertsonen oinarritzko eskubideei, europear zuzentarauei eta maila baxuagoko agindu eta ordenantzei dagokienez.

Azpimarratzen dugu ondoko xedapenak aipamen modura soilik adierazten direla eta ez direla mugatzaileak:

- 1) Legeria espezifikoak:
 - .- Irailaren 24ko 288/1985 Dekretua, Parque Tecnológico-Teknologi Elkartegia S.A. sozietatearen funtzionamendu-arauei buruzkoa.
 - .- Sozietatearen estatutuak.
- 2) Bigarrenik, BZTP, merkataritza-sozietate anonimoa izaki, sozietate mota horiei aplikagarri zaien zuzenbide pribatuaren arauari jarraitzen die. Beraz, merkataritzako sozietateei, oro har, eta sozietate anonimoei, bereziki, aplikatu beharreko legeriaren mende dago bere jarduera.
- 3) Gainera, adierazi beharra dugu Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailari atxikitako sozietate publikoa dela BZTP. Beraz, sektore publikoaren zati denez, estatuaren eta autonomia-erkidegoaren legeriaren arabera sozietate publikoentzat xedatutakoa aplikatzen da, honako hauek aipagarriak direlarik:

Estatuko legeria:

- .- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, diru-laguntzei buruzkoa.
- .- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektorre Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentzarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

EAEko berezko araudia:

- .- 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzekoa.
- .- 116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoa.
- .- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, zeinaren bitartez onesten baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina.
- .- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, zeinaren bitartez onesten baita Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina.



- 4) Sozietatearen jarduerari dagokionez duten garrantzia aintzat hartuta, ondokoak ere aipatu behar dira:
- .- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoaren eskuragarritasunari eta gobernantza onari buruzkoa.
 - .- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.
 - .- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, zeinaren bitartez onesten baita Langileen Estatuaren Legeko testu bategia.
 - .- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
 - .- Etab.

BZTP-k zerbitzu juridikoa du kontratatuta URÍA Y MENÉNDEZ ABOGADOS S.M.P.-rekin, zeinek identifikatu egiten baititu aplikagarri izan daitezkeen lege eta araudien baldintzak.

URIA Y MENENDEZ ABOGADOS S.M.P-ek berrikusi du, 2019ko urtarrilaren 4ean